



IKASTETXEAREN HEZKUNTZA PROIEKTUA. ZAMUDIOKO ESKOLA

Aurkibidea

1. Printzipioak, balioak eta nortasun-ezaugarriak.
2. Helburuak
 - 2.1. Helburuak
3. Curriculumaren eta antolamenduaren esparruetako aukerak.
 - 3.1. Curriculumaren esparrua.
 - 3.1.1. Metodologia-aukerak.
 - 3.1.2. Ebaluazioa.
 - 3.1.3. Hezkuntza-eskaintza.
 - 3.1.4. Aniztasunari erantzutea.
 - 3.1.5. Orientabidea eta tutoretza.
 - 3.2. Antolamenduaren esparrua
 - 3.2.1. Eskolaren antolamendua, funtzionamendua eta kudeaketa.
 - 3.2.2. Parte hartzeko eredua.
 - 3.2.3. Bizikidetzeta.

Gure eskolako nortasun-ezaugarriak honako hauek dira:

1. EUSKALDUNA. Euskal Herriko izaera, nortasuna, idiosinkrasia eta kultur berezitasunak oinarrituta. Hezkuntza-komunitateko kide guztien artean euskararen erabilera sustatuz.
2. KALITATEZKOA. Ikasle guztiei eskaintza berdina ematea, ikasle guztien gaitasun fisikoak, intelektualak, afektiboak, sozialak eta etikoak aurkitzen, ezagutzen eta garatzen laguntzea.
3. PARTAIDETZA. Hezkuntza-komunitateko sektore guztien arteko komunikazio eta elkarlana bermatzea.
4. AUTONOMOA. AUTOKUDEAKETA. Eskola alde pedagogikoan eta antolamenduan erabakitzailea izatea; Eskolak Hezkuntza Proiektuan errotua egongo da eta eskolako giza baliabideei eta baliabide materialei ahalik eta etekinik handiena lortuz.
5. ANITZA. Gure ikasleak giza eskubidean, balio etikoen eta askatasunen errespetuan hezteko, generoaren, arrazaren edo erlijioen arabera bazterketa-jokabideak ekiditeko, banakotasunaren printzipioa errespetatuz.
6. KRITIKOA. Nork bere erabakiak erantzukizunez eta askatasunez hartu ahal izateko gaitzea eta zentzu kritikoa garatzea eta erabiltzea.
7. METODOLOGIA-IRAKASLEAK-IKASLEAK. Ikasleen gaitasunak garatzeko eta globaltasuna nahiz diziplina artekotasuna errespetatzeko metodologiak sustatzea. Irakasleei prestakuntza eta eguneratzen jarraitua izateko aukera eskaintzea, eskolako beharrak eta baliabideak kontuan hartuta. Teknologia berrien erabilera areagotzea, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren eta eskola-komunitatearen eragileen parte-aktiboaren zerbitzura ipinita.
8. HEZKIDETZAILEA. Eskolan hezkidetzaren ideia eta kontzeptua zabaltzea, genero mugarik gabe ikasleen nortasunaren garapen osoa lortzeko bitarteko gisa eta irakasleak ikasleen heziketan jotzen duten paperaren garrantziaz jabetzea, balio eta jarreraren igoerle diren neurrian.

2. HELBURUAK

1. Guztientzako lan-giro atsegina lortzea.

2. Eskola-esparruko talde guztien komunikazio-hizkuntza euskara izango da (jantokian, patioan, eskolaz kanpoko jardueretan)
3. Gure ikasleen nortasuna garatzea sustatzea, ikasteko, arrazoitzeko eta bere kasa erabakiak hartzeko laguntza eskainiz.
4. Irakasleei prestakuntza eta eguneratze jarraitua izateko aukera eskaintzea, ikastetxearen beharrak eta baliabideak kontuan hartuta.
5. Gure ikasleak giza eskubideen, balio etikoen eta askatasunen errespetuan heztea, sexuaren, arrazaren edo erlijioaren araberako bazterketa-jokabideak ekiditeko.
6. Talde-lana eta ideia-trukea sustatzea.
7. Ikasleen gaitasunak garatzeko eta globaltasuna nahiz diziplina-artekotasuna errespetatzeko metodologiak sustatzea.
8. Ikasleei laguntzea beren eguneroko zereginei autonomiaz ekiten, beren ahalmenez jabetu daitezten eta autonomia pertsonala gara dezaten bultzatuz.
9. Ikasleen garapen emozionala bultzatzea, hazteko eta pertsona-arteke harreman positiboak eraikitzeko trebetasunak landuta.
10. Teknologia berrien (IKT) erabilera areagotzea, irakaskuntza ikaskuntza prozesuaren eta eskola-komunitatearen eragileen parte-aktiboaren zerbitzura ipinita.
11. Ikastetxeko ikasle guztiek beren gaitasunak ahal beste garatzea.
12. Irakasleen etengabeko formazioa bultzatzea, kalitateko hezkuntzaren adierazle den aldetik
13. Ikasle guztiengan ikasteko nahia sustatzea, eta gero eta modu autonomoagoan ikasteko gaitzea.
14. Ikastetxeko giza baliabide eta baliabide material guztiak era egoki eta eraginkorrean kudeatzea.

3. CURRICULUMAREN ETA ANTOLAMENDURAKO ESPARRUA

3.1.1. Metodologia-aukerak

Metodologia da ikaskuntza-prozesua kudeatzeko hautatzen den bidea edo estrategia, kontuan hartuz prozesu horretan parte hartzen duten elementu guztiak. Ondorio metodologiko hauek kontutan izango ditugu:

*Oinarrizko kompetentziak lortzeko lagungarri.

Kompetenzien arabera jokatzeko, beharrezkoa da modu bereizezinean pentsatzen, komunikatzen, elkarrekin bizitzen eta norbera izaten ikastea.

Zehar Kompetentziak hauek dira:

- Komunikazio- kompetentzia eta kompetentzia digitala: Komunikatzen jakitea.
- Ikasten ikasteko kompetentzia: Pentsatzen eta ikasten jakitea.
- Gizarterako kompetentzia: Elkarrekin bizitzen jakitea.
- Norberaren autonomiarako kompetentzia: Norbera izaten jakitea.
- Norberaren ekimenerako kompetentzia. Ekimenez jokatzeko jakitea.

Kompetentzia orokorrak hauek dira:

- Komunikazio-, Hizkuntza- eta Literatura kompetentziak: Hizkuntzak eta Literatura.
- Matematikarako kompetentzia: Matematika.
- Zientziarako kompetentzia: Natura-zientziak.
- Teknologiarako kompetentzia: Teknologia.
- Arterako kompetentzia; Plastikaren eta ikusizkoen adierazpena. Musika eta Dantza.
- Motrizitaterako kompetentzia: Gorputz-Hezkuntza;
- Gizarterako kompetentzia: Gizarte-Zientziak;

*Eleaniztasuna garatzea, euskara ardatz hartuta.

Euskal eskolak elebitasuna bermatzeko duen erronkaz gain, badu beste helburu bat ere: pertsona eleaniztunak lortzea, gutxienez atzerriko hizkuntza bat behar adina dakitenak.

*Irakatsi eta ikasteko prozesuetan IKTak txertatzea.

Oinarrizko hezkuntza amaitzen duen ikasleak kompetentzia digitala eta mediatikoa eduki behar du, hau da, egungo herritarrek eskatzen duten alfabetizazio edo trebakuntza funtzional osoa.

*Ikasleen ikaskuntza erritmo desberdinak.

Irakasleak ikasleen irakats- ikasketaren prozesuan gida eta bitartekari moduan agertuko da.

*Ikasleen garapena eta alde zuzenak ikasitakoa.

Erabilgarriak diren funtziozko ikasketak bermatzea beharrezkoa da, bai aplikatzeko jasotako ezagutzan bai erabiltzeko hurrengo ikasketan.

*Taldekotasunaren sustatzea.

Berdinen arteko harremanak indartzea, ikuspuntu desberdinak, interesen koordinazioa, taldeko erantzunak, arazoak gainditzea elkarriketaren bidez...

3.1.2. Ebaluazioa.

Lehen Hezkuntzako kurtzoko bukaeretan irakasleek talde bakoitzeko amaierako ebaluaketa egingo dute. Emaitzak Hezkuntza Sailak emandako ebaluaketa aktetan agertuko dira eta ebaluaketako emaitzak honela agertuko dira: Gutxi (GU) emaitza ezkorak direnentzat, Nahiko (NA), Ondo (O), Oso Ondo (OO) edo Bikain (BI) baikorrak direnentzat.

Ikasleek hiru txosten edo informeak eramango dituzte: 1goa Gabonetako oporrak hartu baino lehen, 2.a Aste Santuko oporrak hartu baino lehen eta 3.a kurtso bukaeran.

Dokumentu ofizialak espediente akademikoa, ebaluaketa aktak, etapa bukaerako ebaluaketa dokumentazioa, LHko 3. Mailako ebaluaketa, historial akademikoa, eta beharrezkoa denean trasladoagatik norbanako txostena.

Ebaluazio diagnostikoa. Ikasleen oinarrizko konpetentzien lorpen maila jakitea zein den da froga honen helburua. Banakako ezaugarriak baita egoera soziala, kultura eta linguistikoa ere kontutan izango dira. Emaitzek irakats prozesua hobetzeko balioko dute, hau da, hobekuntza plan bat egiteko eta martxan jartzeko, hutsuneak hobetzeko asmoz.

Hezkuntza Sailak Lehen Hezkuntzako 4. mailan barruko ebaluazio diagnostiko bat eta 6. Maila amaieran kanpoko ebaluazio diagnostiko beste bat egingo ditu. Ebaluaketa biak prestakuntza-orientatzaile izaera izango dute zentrorako eta familientzat informatiboa izango da.

3.1.3. Hezkuntza-eskaintza.

Zamudioko eskola Haur Hezkuntza bi urtetik 5 urtera banatzen da eta Lehen Hezkuntza hiru ziklotan, 1. Zikloa, 1. eta 2.mailak; 2.zikloa, 3. eta 4. Mailak; eta 3. zikloa 5. eta 6.mailak, osatzen dute. Honako taldeek D ereduan jasotzen dute hezkuntza.

3.1.4. Aniztasunari erantzutea.

Gure zentroak eskola inklusiborantz abiatu nahi du.

3.1.5. Orientabidea eta tutoretza

Tutoreak bere taldeko ikasleak bere ardurapean izango ditu, gela horretako beste irakasleekin koordinatuta egongo da eta familiekin etengabeko komunikazioan egongo da.

Tutoretza Plana (Eskolako Curriculum Proiektuaren barne) tutoretza saioetan emango diren edukien orientabide moduan erabiliko da eta tutorearen esku-harmena bai banakakoan bai taldekoan sistematizatuko du, baita familiarekiko harremanak, irakasleen koordinazioa, beste kanpoko agenteak ere.

3.2. ANTOLAMENDUAREN ESPARRUA

3.2.1. Ikastetxearen antolamendua, funtzionamendua eta kudeaketa

1.- Antolamendurako eta Jardueratarako Araudia (AJA) ZAMUDIOKO ESKOLAKO dokumentua dugu

- AJAren edukia hau da:

- Antolamendu eta funtzionamenduko definizioa
- Elkarbizitza eta errespetua bermatzen dituzten arauak
- Ebaluazioen emaitzen erreklamazioak nola egin

3.2.2. Parte hartzeko eredia

- **Irakasleak eta gurasoak**

1. Tutoreek eta gainerako irakasleek gurasoei ikasleez informatuko dituzte hiru hilez behin.
2. Informazio hau idatziz emango da txosten batean jasotzen diren materia desberdinen kalifikazioak eta, bere kasuan, hartu ahal izan diren heziketa-neurri bereziak tokian.

- **Irakaskuntza taldeen arteko koordinazioa.**

1. Batzorde batzuk sortuko dira. Bi batzar egingo dira derrigorrez eta gero beharren arabera batzartuko dira. Batzorde horiek izango dira:
 - Batzorde Iraunkorra
 - Batzorde ekonomikoa
 - Jantoki batzordea
 - Batzorde Pedagogikoa Kurtso hasieran
 - Bizikidetza eta Elkarbizitza batzordea
 - HNP (astero)

- **Irakaskuntza, udala eta, guraso taldeen arteko koordinazioa**

OOG da irakasle, udala eta gurasoen ordezkariak. Kurtsoan batzar bi egingo dira gutxienez; bat kurtso hasieran eta bestea bukaeran. OOG-n eskolako plana, egutegia eta memoria aprobata behar dira, beste gai batzuen artean.

13 irakaslek, 15 gurasok eta udaleko ordezkari batek osatzen dute. OOGren burua zuzendaria da.

- **IGE eta zuzendaritza**

Beharrezkoa den guztietan elkartuko dira.

- **Irakasleak eta Berritzegunea**

Kurtso hasieran, berritzeguneko erreferente arduradunak eta zuzendariak elkar trukatuko dituzte eskaintza eta beharrak eta kurtsoarako plan bat sortuko dute.

3.2.3. Bizikidetzaren Elkarbizitza.

Elkarbizitzarako hezkuntza helburua bihurtu egin da. Honek garrantzia handia baitu hezkuntza-komunitatekide guztien ongizatean, baita ikasleen garapen pertsonal zein sozialean eta haien errendimendu akademikoan ere.